

PROIEKTUAREN SARRERA

Gure ikastetxea Nafarroako ipar-mendebaldeko Bera herrian dago. “D” eredu da, gaur egun, eskolan dugun eredu bakarra. Herrian bertze bi ikastetxe daude, Labiaga ikastola eta Jesusen Bihotza ikastetxe pribatuak. Ikastetxean 2006 – 2007 ikasturtean 123 ikasle ditugu matrikulatuak, gehienak beratarrak. Emigrante kopurua hagitz txikia da, Berara ailegaten diren gehienak Jesusen Bihotza ikastetxean matrikulatzen direlako.

Bera Bortzirietako herrietako bat da. Gure eskualdea, Bortziriak, berez nahiko euskalduna den arren, Berako karrketan erdara aunitz entzuten da. Horren lekuko dira egin ziren azkeneko kale neurketak. Haien arabera, Berako kaleetan herritarren % 60k egiten dute euskaraz.

Neurketa horien ondorioetariko bat izan zen haur eta gazteen artean, edo beraiek presente direnean, euskararen erabilera aunitzez handiagoa dela. Helduak bakarrik daudenean, ordea, erabilera nabarmenki jaisten da.

Egoera hori ere etxeetara eraman daitekeela uste dugu. Gure ikastetxeko ikasle aunitzen etxeetan helduen artean erdara aunitz egiten da, nahiz ikasle gehienek familietan senide euskaldunak izan.

Hasiera batean, “Euskara sustatzeko plangintza” garatzea baino aunitzez helburu xumeagoa genuen. Gure kezka nagusia zen patioetan zenbait ikaslek, edo ikasle-taldeek, gaztelerara jotzeko zuten joera. Joera hori nola aldatu hausnartzen ari ginenean, Euskara Zerbitzuak antolatutako hitzaldi batzuen berri izan genuen. Hitzaldi horietan ahozkotasanari buruz hitz egin behar zenez, parte hartzea erabaki genuen. Patioetako arazoari irteera emateko zenbait ideia eta proposamen hartuko genuela pentsatzen genuen.

Ez genekien, ordea, zen hitzaldi haiek, eta beranduago egin genuen prestakuntzak, zer nolako astinaldia emanen zioten gure ikastetxean euskara lantzeko genuen erari.

Izan ere, prestakuntza horri esker ohartu ginen euskara bere osotasunean hartuko zuen plangintza baten beharra genuela. Eta planak patioetan ikasleek egiten zuten hizkuntzaz haratago bertze hainbat esparru kontuan hartu behar zituela, hala nola:

- Eskolak dituen kanpo harremanak: udalarekin, Hezkuntza departamentuarekin, argitaletxeekin
- Gurasoekin harremanak: bileretan euskararen presentzia, gurasoentzako informazioa eta aholkularitza...
- Eskolaz kanpoko ekintzetan euskararen bermea: antzerkiak, hitzaldiak, bisitak... Baita txangoetan ere: musika euskaraz, filmak, txoferrak...
- Jostetak euskaraz bultzatzea: jolasak, sokasaltoan aritzeko kantak, arauak eta leloak...
- Aho hizkuntza lantzea: horretarako aho hizkuntzaren programaketa egin behar genuen.

Horrela, bada, 2001-2002. ikasturtean sortu genuen gure lehendabiziko “Euskara sustatzeko plana”.

Plan hartan, ikasturte horretatik aitzinera gaur egunera arte, jarraitu beharreko lerro nagusiak ezarri genituen. Aunitz izan ziren ezarritako helburuak eta aunitz ordutik hona egindako lana. Ezin ukatu, hala ere, zailtasunak eta garatu edo burutu gabeko helburuak oraindik ere baditugula zain.

Ordutik hona gure ikastetxean zerbait nabarmenki hobetu bada, ahozko hizkuntzari ematen zaion trataera izan da. Lehen aho hizkuntza ez zen programatzen eta, beraz, ez zen behar bezala ebaluatzen. Idatzizko hizkuntza zen nagusi gure klaseetan eta nagusi, era berean, irakaslea gelan hizketan. Horretaz ohartzeak aho hizkuntza nola sekuentzializa zitekeen erakutsiko zigun mintegia egitera bultzatu gintuen.

Mintegi horren bitartez hasi ginen ulertzen eta ikasten nola programa zitekeen ahozko hizkuntza. Mintegian zehar, taldeka, testu ezberdinak sekuentzializatzen

ikasi genuen. Beste eskoletako lanak ere eskuratu ahal izan genituen eta horrela, material horretatik abiatuta, zikloz ziklo ahozkoa programatzen hasi ginen.

Mintegi horretan ikasitakoa oinarritzat hartuta, ziklo eta etapa desberdinetan lantzen ditugun testu motak sailkatu eta sekuentzializatu ditugu.

Orain arte egiten genuena aunitz zela ohartu gara, baina lan hori guztia ordenatu eta etapa eta zikloen arteko koherentzia bermatzen ahalegindu gara.

Bertze hobekuntza bat patioetan egiten den euskararekin lotuta dago. Arestian erran bezala, horixe izan zen euskararen plana martxan jartzeko abiapuntua. Izan ere, kezkatzen gintuen zenbait ikaslek, eta ikasle-taldek, patioetan erdarara jotzeko zuten joerak.

Egin genuen lehendabiziko gauza izan zen egiaztatzea ea gure ustea (ikasleek patioetan gazteleraz hitz egiten zutela, alegia) egia ote zen eta zein egoeratan gertatzen zen erdarara jotzeko joera hori.

Datuek agerian utzi zuten gure ikasleak ; uste baino gutxiagotan aritzen zirela erdaraz patioetan eta, gehienetan, hagitz jolas zehatzetan. Jolas horietan erdaraz ikasiak zituzten esapideak errepikatzen zituzten euskarazko baliokiderik ez zutelako. Bertze datu azpimarragarri bat izan zen aunitzetan ikasleen arteko esapide emozionalak gazteleraz erraten zituztela.

Ondorioa argia zen: ikasle aunitzek ez zuten baliabiderik patioetako jolas eta egoeretan euskaraz aritzeko eta gaztelerazkoak baliatzen zituzten. Hizkuntza ez formalaren faltan zeuden, alegia.

Horixe izan da atera dugun bertze ondorio bat: eskolak hizkuntza formalaren ondoren hizkuntza ez formala ere eskaini behar dio ikasleari, gazteleraz ez bezala, ez duelako euskaraz kalean ikasten.

Geroztik, geletan ahozko hizkuntza formala eta ez formala lantzen hasiak gara eta horri esker gure ikasleek erregistro berriak ikasten ari dira, geroago patioetan, kalean... erabiltzeko baliagarriak zaizkienak.